



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN TXOSTENA, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOAREN AURREAN UZTAILAREN 17KO 4/2013 FORU ARAUA, FORU SEKTORE PUBLIKOKO OBRA KONTRATUETAN KLAUSULA SOZIALAK TXERTATZEKO, AURKARATZEARI BURUZKOA

### Aurkibidea

I.- TXOSTENAREN XEDEA .....	1
II. OINARRI JURIDIKOA ETA LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN ESKU-HARTZEAREN IRISMENA .....	2
III. ARAUAREN EDUKI NAGUSIA .....	2
IV. FORU-ARAUAREN TESTUAREN AZTERKETA LEHIAREN IKUSPEGITIK .....	3
1. Merkatua lizitazioetan .....	3
2. «Gizarte klausula» kontzeptua .....	4
3. Izaera sozialeko klausulak txertatzeari buruzko araudia .....	5
4. Izaera sozialeko klausulak txertatzea eta laneko araudiarekiko bateragarritasuna .....	8
5. Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboa .....	10
6. Foru Arauaren eskumenaren gaineko balizko eragina .....	10
V. BALIZKO AURKARATZERAKO EPEA .....	13
VI. ONDORIOAK .....	13

### Consejo Vasco de la Competencia

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, batzordekidea

Ibon Álvarez Casado jauna, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak, goran adierazitako osaera duenak, honako txosten hau igorri du.

### I.- TXOSTENAREN XEDEA

1. 2013ko uztailaren 22an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean uztailaren 17ko 4/2013 Foru Araua, foru-sektore publikoko obra kontratuetan klausula sozialak txertatzeari buruzkoa (aurrerantzean KSTFA). Haren xedea, 1. artikuluan adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-



sektore publikoa osatzen duten erakundeetako kontratazio-organismoek eginiko obra publikoen kontratazio-prozeduretan sartu beharreko klausula sozialen edukia zehaztea da.

2. Lehiaren Euskal Kontseilu honek, txosten honen bitartez, adierazitako foru-arauko eskumen-arauekiko bateragarritasun-azterketa bat egin du.

## **II. OINARRI JURIDIKOA ETA LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN ESKU-HARTZEAREN IRISMENA**

3. Lehiaren Euskal Agintaritzaren 1/2012 Legearen 3. artikuluko laugarren lerrokadak ezartzen du Lehiaren Euskal Agintaritzak ondoko egintza hauek aurkatu ahal izango dituela administrazioarekiko auzien jurisdikzioan: administrazio-zuzenbideari loturik dauden Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen (erkidegoko, foru- eta toki-administrazioak) egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak, horien bidez merkatuko benetako lehiari oztupoak jartzen baldin bazaizkio. Eskumen horretatik kanpo geratuko dira Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek onartutako foru-arau fiskalak.

Araudi horretan ezarritakoari jarraiki, Lehiaren Euskal Agintaritzak adierazitako foru-araua aztertzeari ekingo dio, lehiaren defentsarako araudiaren ikuspegitik, hura dagokion administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratzea egokia den ala ez erabakitzeko.

## **III. ARAUAREN EDUKI NAGUSIA**

4. Aztertutako foru-arauren aplikazio-eremua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez (KSTFAren 2.1 eta 2.2 artikulua) esleitzeko ezarritako zenbatekoa baino handiagoa edo berdina den balio estimatua duten obren kontratuetara mugatzen da –Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki izendaturikoak–.

Arau horrek behartu egiten ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeetako kontratazio-organo guztiak (KSTFAren 3. artikulua).

Arauk ezarritakoaren arabera, izaera sozialeko zenbait klausula txertatu behar dira bere aplikazio-eremuan sartzen diren obra-kontratuetan. Klausula horiek obren kontratazio-prozeduren administrazio-klausula partikularren pleguetan txertatu behar dira nahitaez.

Lehenik, lizitazioaren iragarkian eta administrazio-klausula partikularren pleguen azalean azpial bat txertatu behar da, honako hau dioena: «Kontratua



Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboaren azken testuan jarritakoaren mende geratuko da».

Bigarrenik, KSTFAren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio-klausula partikularren pleguetan, nahitaez, honako klausula hau txertatuko da:

Kontratatik lan arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden lege, arau eta hitzarmen guztiak bete behar ditu. Bereziki, **Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboan edo hura berrikusten duten ondorengo hitzarmen kolektiboetan jasotzen diren lan-baldintzak (...).**

Hirugarrenik, 6. artikuluan eskatzen du administrazio-klausula partikularren pleguetan esleipen-irizpideei buruzko aipamen bat txertatzea, neurritz kanpoko edo ohikoa ez den proposamen bat aurkezten den kasurako.

Eskaintza bat neurritz kanpoko edo ezohikotzat joko da, baldin eta bere beherapen portzentajeak %10 baino gehiagotatik gainditzen badu onartutako proposamen guztien beherapen portzentajeen batez besteko aritmetikoa.

Horretaz gain, agindu horren bosgarren paragrafoak honako hau dio: «Neurritz kanpoko edo ezohiko balioak ematen dituzten eskaintzek kontratuko baldintzak ez dituztela beteko irizteko parametro objektibo bat izango da eskaintzetan agertzen diren prezioak baxuagoak izatea indarrean dagoen hitzarmen kolektiboan langile mota bakoitzerako ezarrita dauden soldata minimoak baino».

Azkenik, KSTFAren 7.4 artikulua dio enpresa kontratugileak behartuta daudela langileen % 30, gutxienez, kontratu mugagabea duten langileak izateko betebeharra betetzera, lanaren egonkortasuna bermatzeko.

Betebehar horiek guztiak exekuzio baldintza berezitat jotzen dira eta egiaztatzen egin beharko dira kontratuaren exekuzio-esparruan (KSTFAren 7.6 artikulua).

## **IV. FORU-ARAUAREN TESTUAREN AZTERKETA LEHIAREN IKUSPEGITIK**

### **1. Merkatua lizitazioetan.**

5. Foru-arauaren arabera bere aplikazio-eremu objektiboan sartzen dira «Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 6. artikuluaekin bat obra-kontratu gisa izendaturiko kontratu guztiak». Zehazki, arauak dio hari lotuta egongo direla publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez



esleitzeko ezarritako zenbatekoaren balio bera edo handiagoa duten obra-kontratu guztiak.

Aplikazio-eremu subjektiboari dagokionez, arauak dio Gipuzkoako lurralde historikoko foru-sektore publikoa osatzen duten erakunde guztien kontratazio-organo guztiei aplikatuko zaiela.

6. Lizitazioetan merkatu nagusia zein den zehazteari dagokionez, aintzat hartu behar dira lizitazio bakoitzaren ezaugarriak, bai baitira batzuk, beren garrantzia dela-eta, berez merkatu bat osatzen dutenak, eta beste batzuk merkatu zabalago baten zati direnak<sup>1</sup>. Arauaren aplikazio-eremuak, dena dela, Gipuzkoako lurralde historikoan eginiko obra publikoen kontratuei eragiten die. Obra publikoek ari garenez, lizitazioen bitartez gauzatzen dira, eta, ondorioz, lehia **merkatuaren bitartez** egiaztatzen da, eta ez merkatuan, eta, ondorioz, lizitazioan duen **eraginak** kontratuaren eta haren gauzatzearen iraunaldi osoan du eragina. Premisa horiek abiapuntutzat hartuta, txosten honetan planteatutako gaia garrantzi handikoa da; izan ere, lizitazioaren unean soilik gauzatzen da merkatuan sartzea.

Azpimarratu beharra dago Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 1. artikulua honako hau ezartzen duela arauaren xede eta helburu gisa:

«Sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da lege honen xedea. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasun-printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioak eta **lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak**; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak alde aurretik definituz, **lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintza hautatuz**».

## 2. «Gizarte klausula» kontzeptua

7. «Gizarte klausula» kontzeptua erabiltzen da kontratazio publikoarekin batera doan inbertsio publikoak gizarte-politikaren helburuak aintzat hartuko, sustatuko edo bultzatuko dituela adierazteko. Ondorioz, esan liteke klausula sozialak direla kontratu publiko baten esleipendunei behartzen dietenak, kontratuaren

<sup>1</sup> ...Ikuspegi ekonomikotik, lizitazio edo lehiaketa bat, berez, merkatu nabarmen izatea lizitatzen den produktuaren izaeraren arabera da, batik bat, baita haren bereizketa-mailarena eta merkatura irteten den maiztasunarena ere. Lehiara edo enkantera ateratzen dena produktu oso berezia denean, eta horretaz gain, oso tarteka geratzen bada, lehia-baldintzak oso espezifikoak izango dira, edo asko alda daitezke aldi batetik bestera. Kasu horietan justifikatuta egon liteke lizitazio bakoitza merkatu gisa definitzea.



xedea betetzeaz aparte, interes orokorreko zat jotzen diren gizarte-politikako zenbait helburu betetzera.

Klausula soziala kontratuaren betebeharr nagusiari erantsitako xedapen bat da – eta harengandik independentea–; izan ere, klausula horrek ez du zerikusirik izaten kontratua betetzeko espezifikazio teknikoekin.

### **3. Izaera sozialeko klausulak txertatzeari buruzko araudia.**

8. Europako Batzordearen 2001eko urriaren 15eko Interpretazio Komunikazioak, Europako Erkidegoko kontratu publikoen legediari eta haietan alderdi sozialak txertatzeko aukerei buruzkoak, kontratu publikoetan gizarte alderdiak txertatzeko Erkidegoko esparru juridikoak eskaintzen duen aukera sorta argitaratu zuen.<sup>2</sup> Adierazitako komunikazioak garapen jasangarria bultzatu nahi zuen, hura hazkunde ekonomikoarekin, gizarte aurrerapenarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin uztartuta. Sarreran dioen bezalaxe, Komunikazioa kontratazio publikoari aplikagarri zaion Europar Batasuneko legediak eskaintzen dituen aukerak azalertzera dago zuzenduta, kontratu horietan alderdi sozialak ezin hobe txertatzeari begira.

Arau horren sarrerak dio kontratazio publikoaren politika barne-merkatuko politikaren osagaietako bat dela, eta arlo horretako zuzentzauek salgaien zirkulazio askea, ezartzeko askatasuna eta kontratazio publikoaren arloan zerbitzuak emateko askatasuna bermatzeko xedea dutela<sup>3</sup>.

Helburu horiek gauzatzeko kontratazio publikoko prozedurak koordinatu beharra dago. Hala, botere esleitzzaileek kalitate-prezio erlazio hobea lor dezakete, betiere arau sorta bat errespetatzen badute; esaterako, hautagaiak baldintza objektiboen arabera aukeratzea, eta kontratua prezioaren arabera soil-soilik, edo eskaintza ekonomiko onenaren arabera esleitzea, alegia, irizpide objektibo sorta baten arabera.

<sup>2</sup> 2001eko Komunikazioa (566 amaierakoa); hemen kontsulta daiteke: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2001:0566:FIN:ES:PDF>

<sup>3</sup> Kontseiluaren 92/50/EEE Zuzentaraua, 1992ko ekainaren 18koa, zerbitzuen arloko kontratu publikoak esleitzeko prozedura koordinatzeari buruzkoa, Kontseiluaren 93/36/EEE Zuzentaraua, 1993ko ekainaren 14koa, hornikuntzako kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 93/37/EEE Zuzentaraua, 1993ko ekainaren 14koa, obren kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 97/52/EE Zuzentarauak aldaturikoak, Kontseiluaren 93/38/EEE Zuzentaraua, 1993ko ekainaren 14koa, uraren, energiaren, garraioaren eta telekomunikazioen sektoreetako kontratuak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/04/EE Zuzentarauak aldatua.



Aurrekoa esanda, ñabardura bat egin beharra dago; alegia, barne-merkatuko politikak beste helburu batzuk lortzea biltzen duela, besteak beste, gizarte-politikarekin loturikoak. Horretaz gain, kontratu publikoei buruzko egungo zuzentarauek kontratu publiko bat esleitzeko prozesuan helburu sozialak lortzeko aukera berariaz jasotzen ez badute ere, kontratazio publikoari buruzko Europako araudiak aukera sorta zabala eskaintzen duela, eta aukera horiek behar bezala baliatuz gero adierazitako helburua lortzea ahalbidetzen dutela aipatzen du.

**9. Adierazitako Interpretazio Komunikazioak honako aukera hauek aitortzen dizkie botere esleitzailerei.**

Beren gizarte-kezkei egokituko zaizkien ondasunak, zerbitzuak edo obrak aukeratzea, betiere horrek ez baditu kontratua eskuratzeko aukerak mugatzen, beste estatu kide batzuetako lizitatzailen kaltetan.

b) erosketaren edo prestazioaren xedea zehaztasun handiagoz definituko duten espezifikazio teknikoak ezartzea, betiere haiek zuzentarauetan emandako jarraibideak betetzen badituzte eta ez badute helburutzat lizitatzaille bat baztertzea edo hari aldea ateratzea.

c) gizarte-segurantzaren kotizazioen ordainketa egunean ez duen edozer lizitatzaille baztertzea, ezarrita dagoen herrialdeko edo esleitzailerearen herrialdeko legezko xedapenen arabera.

d) bere moraltasun profesionalari eragiten dion edozer delitugatik epai bidez zigorturiko edo lanbide-arloan hutsegite larri bat egin duen edozein lizitatzaille baztertzea, betiere bigarren kasu horretan esleitzailerek hutsegitea egiaztatzeko bideren bat badago.

e) esperientzia jakin bat eskatzea hautagaien jardun ona erakusteko gaitasuna edo jakintza teknikoa frogatzeko irizpide gisa, betiere kontratuak gizarte-arloan gaitasun espezifikokoak izatea eskatzen badu.

f) ekonomikoki abantaila handienak eskaintzen dituen eskaintza erabakitze alderdi sozialak bilduko dituzten irizpideak erabiltzea, betiere esleitzaileri kontratuaren xede den produktuarekin edo zerbitzuarekin loturiko abantaila ekonomiko bat badakarkioten.

g) kontratuan zenbait klausula edo «kontratua betetzeko baldintza» aplikatzea, betiere Europar Batasuneko zuzenbideari egokitzen bazaizkio eta, bereziki, ez badute diskriminazio-eragin zuzenik edo zeharkakorik gainerako estatu kideetako lizitatzailleentzat.

**10. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/18 Zuzentarauek, 2004ko martxoaren 31koak, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak esleitzeko**



prozesuak koordinatzeari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, esleitzzaileek aukera dute kontratuaren xede diren obren, horniduraren eta zerbitzuen onuradunen artean egoera bereziki ahulean diren biztanle-kategorien premia zehatzei erantzungo dieten gizarte-eskakizunak asetzera bideraturiko irizpideen arabera jokatzeko<sup>4</sup>.

Hala, 26. artikulua ezarritakoaren arabera, botere esleitzzaileek baldintza bereziak –gizartearekin eta ingurumenarekin loturikoak– eskatu ahal izango dituzte kontratua burutzeari buruz, Batasuneko Zuzenbidearekin bat baldin badatoz eta lizitazio-iragarkian edo baldintzen pleguan adierazten baldin badira.

Bestalde, 27. artikulua ezartzen du botere esleitzzaileak baldintza-pleguan adierazi ahalko duela prestazioak emango diren estatu kidean, eskualdean edo udalerrian indarrean diren zerga-arloari, ingurumenaren babesari, babesaren arloko xedapenei eta lan-baldintzei buruzko betebeharren gaineko informazioa nondik lortu ahalko duten hautagaiek edo lizitatzzaileek; izan ere, baldintza horiek aplikatuko baitzaizkie obran eginiko lanei edo kontratuaren exekuzioan zehar emandako zerbitzuei. Informazio hori ematen duen botere esleitzzaileak beren eskaintzak egiterakoan prestazioak gauzatuko diren lekuan babes eta lan-baldintzen arloan indarrean diren xedapenetatik eratorritako betebeharrak aintzat hartu dituztela adieraztea eskatuko die lizitatzzaileei.

Azken xedapen horrek ez dio inolako kalterik egingo 55. artikuluan ezarritakoari. Honako hau dio 55. artikulua:

*Kontratu jakin bati dagokionez eskaintzaren bat anormalki baxuegiztat jotzen bada prestazioari dagokionez, eskaintza hori baztertu baino lehen, esleitzzaileak idatziz eskatuko ditu eskaintzaren osaerari buruz egokitzen jotzen dituen zehaztasunak. Zehaztasun horiek, besteak beste, *prestazioak egingo diren lekuan indarrean diren babesari eta lan-baldintzei buruzko xedapenei egin diezaiekete erreferentzia.**

**11.** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 14ko Legegintzako Errege Dekretuak onarturikoak, kontratazio publikoan arlo sozialarekin zein ingurumenarekin loturiko gogoetak txertatzeko hainbat mekanismo aurreikusten ditu<sup>5</sup>.

Hortaz, 117. artikulua ezartzen du agindu teknikoak, ahal dela, irisgarritasun unibertsaleko eta guztiontzako diseinuko irizpideak aintzat hartuta zehaztuko direla, termino horiek Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-

<sup>4</sup> Ikus 2004ko apirilaren 30eko EBAO hemenean: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2004:134:0114:0240:ES:PDF>

<sup>5</sup> <http://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17887>



berdintasunaren, Diskriminazio-ezaren eta Irisgarritasun Unibertsalaren Abenduaren 2ko 51/2003 Legean definitzen diren moduan.

Bestalde, hemezortzigarren xedapen gehigarrian dio kontratazio publikoaren eremuan zein komunikabide onartuko diren zehaztea, elementu lagungarriak diseinatzea eta prozedurazko izapideak ezartzea, irisgarritasun unibertsalaren irizpideak eta guztientzako diseinuaren irizpideak kontutan hartuta egin beharko dela, termino horiek Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukeraber dintasunaren, Diskriminazio-ezaren eta Irisgarritasun Unibertsalaren Abenduaren 2ko 51/2003 Legean definitzen diren bezala.

**12.** «EBko kontratazio publikoko politikaren modernizazioa: kontratazio publiko eraginkorragoko merkatu europarrerantz» gaiari buruzko Eskualdeetako Lantaldearen irizpenak honako hau dio 20. lerrokan: «*Erakunde publikoek Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzeko ekarpen handia egin dezake, Europako Batzordearekin bat eginik, horretarako "sozietate balio" handiagoa duten ondasunak eta zerbitzuak lortzeko beren erosahalmena erabilita – esaterako berrikuntza bultzatzeko, ingurumena errespetatzeko, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, energia-kontsumoa murriztuta edo enplegua, osasun publikoa eta gizarte-baldintzak hobetuta, baita berdintasuna bultzatuta ere, ahulezia egoeran diren taldeen laneratzea hobetuta–. Ezinbestekoa da helburu horien artean, eta objektibotasunaren eta diskriminaziorik ezaren arteko oreka bilatzea, lehia ekitatiboagoa baten alde, hala ETEei sartzeko bidezko aukera eskainita. Horretaz gain, beren lizitazioetan, zentralizatu gabeko entitateek EBko gutxieneko baldintzak baino irizpide zorrotzagoak ezartzeko aukera izan behar dute, lehia askea arriskuan jarri gabe. Dena dela, Komiteak zera eskatzen dio Batzordeari: kontratazio publikoari buruzko zuzentarau berriak egiterakoan, aukeratzeko askatasun-tarte bat ematea botere esleitzaileri. Hori egiteko hainbat aukera daude. Batetik, agintari publikoek eskatzea beren kontratazio publikoan "sozietate balioa" emango duten zenbait zerbitzu bultzatzea, eta, bestetik, aukera-zerrenda batetik bat edo gehiago aukeratzeko askatasuna ematea.»<sup>6</sup>*

#### **4. Izaera sozialeko klausulak txertatzea eta laneko araudiarekiko bateragarritasuna.**

**13.** Duela gutxi jarri da indarrean uztailaren 6ko 3/2012 Legea, lan-merkatua aldatzeko premiazko neurriei buruzkoa<sup>7</sup>. Lege horrek aldatu egiten ditu

<sup>6</sup> C 192/4, 2011ko uztailaren 1eko EBAO, hemen ikusgai: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2011:192:0004:0009:ES:PDF>

<sup>7</sup> Uztailaren 7ko 162. BOE.





martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 84.1 eta 84.2 artikulua; honela gelditu dira idatzita:

«1. Hitzarmen kolektiboari, indarrean dauden bitartean, ezin die eragin beste eremuetako hitzarmenetan xedatutakoak, 83. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera negoziatu den hitzarmen batean kontraktorik itundutakoan salbu; hurrengo paragrafoan aurreikusitakoa ere salbuespena izango da.»

Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 84. artikulua 2. paragrafoa honela idatzita geldituko da:

«2. Enpresa-hitzarmen batean ezarritako baldintzen erregulazioak, goragoko mailako hitzarmen kolektiboen indarraldiko edozein unetan negoziatu ahalko denak, lehentasuna izango du aplikatzeko orduan estatu edo autonomia-erkidego mailako sektoreko hitzarmenarekiko, edo beheragoko mailako hitzarmenarekiko, honako gai hauei dagokienez:

- a) Oinarrizko soldataren eta soldata-osagarrien zenbatekoa, enpresaren egoerarekin eta emaitzekin lotutakoak barne.
- b) Aparteko orduen ordainketa edo konpentsazioa, eta txandakako lanaren berriazko ordainsaria.
- c) Ordutegia eta lan-denboraren banaketa, txandakako lanaren araubidea, eta oporren urteko plangintza.
- d) Langileen lanbide-sailkapeneko sistema enpresa-eremura egokitzea.
- e) Lege honen bidez ematen diren kontratazio-aldaren alderdiak enpresa-hitzarmenetara egokitzea.
- f) Lana, familia-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzea bultzatzeko neurriak.
- g) 83.2 artikulua aipatzen dituen akordio eta hitzarmen kolektiboek xedatzen dituzten beste batzuk.»

Kontratu publiko bat gauzatzeko baldintza gisa lurraldeko hitzarmen kolektibo jakin bat aplikatzea enpresaren hitzarmen kolektiboa aplikatzeko lehentasunaren aurka joan liteke. Aztertzen ari garen foru-araua muga bat izan liteke enpresen autonomia kolektiboarentzat, Legean aurreikusitako (37. art., EE) langileen ordezkariaren eta enpresaburuen arteko lan-negoiazio kolektiborako eskubidea murriztu baitezake.



## 5. Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboa

**14. 2007-2009 aldiko Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboaren 1. artikuluko 1. lerrokadaren arabera, nahitaez aplikatu beharko da bere funtzio-eremuan adierazitako Gipuzkoako lurralde historikoko obretan eta enpresetako lantoki guztietan (...).**

Agindu horren beraren bigarren lerrokadak aurreikusten duenaren arabera, Gipuzkoako lurralde historikoan kokaturiko beren langunetik beste lurralde historiko edo probintzia batera eramandako langileak lekualdaketaren unean indarrean zegoen hitzarmen kolektiboa ez den beste hitzarmen baten mende jartzeko aukera izango da. Xedapen horrek ez du eskatzen beste hitzarmenean aurreikusitako lan-baldintzak Gipuzkoako hitzarmenean bildutakoak baino hobeak izatea langileek lehenengoaren mende egotea aukeratzeko. Aukera horrek Gipuzkoako hitzarmeneko arauak babes minimoko aginduzko xedapentzat har daitezkeen galdegitera garamatza.

## 6. Foru Arauaren eskumenaren gaineko balizko eragina

**15.** Sartzeko trabak eragile berriei merkatu jakin batean sartzeko gogoak kentzeko edo zuzenean sartzen ez uzteko zailtasun eta kostu guztiak dira<sup>8</sup>.

Sartzeko traba horien artean legearekin loturikoak, tekniko-ekonomikoak eta merkatuan diren enpresek duten posizio sendotik eratorritakoak daude.<sup>9</sup>

**16.** Administrazio publikoek merkatu batera sartzeko mugak jarri edo eragozten duten legezko trabak jartzen badituzte, traba horiek hainbat baldintza bete behar dituzte: diskriminaziorik eza, premia (murrizketa interes orokorreko premiazko arrazoi batek justifikatuta egotea) eta proportzionaltasuna (lortu nahi den helburua lortuko dela bermatzeko tresna egokiena izatea, ez dagoelako emaitza bera erdiesteko aukera emango duen eta hain murriztailea izango ez den beste bat)<sup>10</sup>.

<sup>8</sup> LDaren txostena C98/05 Iguatorialio Medikoak izeneko kontzentrazio ekonomikoari buruzko espedientean.

<sup>9</sup> Batzordearen Jarraibideen 71. paragrafoan ezarritako irizpideak, Kontzentrazio horizontalen ebaluazioari buruz, enpresen arteko kontzentrazioei buruzko Batzordearen Erregelamenduari jarraiki (2004/C 31/03).

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2004:031:0005:0018:es:PDF>

<sup>10</sup> Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legea (azaroaren 24ko 283. zenbakidun BOE).



Foru-arauak Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboko edo hura berrikusten duten ondorengo hitzarmen kolektiboetako baldintzak aplikatzea agintzen du –edozer lizitazioen enpresa esleipendunarentzat, Gipuzkoako lurralde historikoko Foru Sektore Publikoko edozer kontratazio-organoren obra-kontraturentzat–. Eremu geografiko, funtzional edo subjektibotik kanpo egoteagatik hasiera batean aplikagarri ez zaien enpresa lizitatzaillei nahitaez hitzarmen kolektibo jakin bat aplikatu behar izateak lizitatzaille bat baztertzea edo desadoretzea ekar dezake.

Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboko lan-baldintzek honako gai hauek biltzen dituzte: denbora-tarte jakin baterako kontratuak hitzartzeko aukera mugatzea, langile bat lekualdatzeko arrazoiak mugatzea (lekualdaketa horren erregimena finkatuta); enpresak kontratua amaitzeagatik kalte-ordainak; ordainketak soldata-taulekin bat; diru-laguntzak eta sariak; lanaldia; oporrak, eta baimenak...

Gai horiek guztiek zuzenean eragiten diote enpresen gizarte-kostuari. Garrantzi eta izaera anitzeko baldintza horiek guztiak berdintzea, horretarako hitzarmen kolektibo jakin bat inposatuta, motiborik gabeko karga izan daiteke, eta hainbat enpresari lizitazioan parte hartzeko gogoia ken diezaike. Era berean, eskaintzak beren artean bereizteko aukera ematen duten elementuak murriz ditzake eta lehiakorragoak egin.

Diskriminaziorik eza, premia eta proportzionaltasun baldintzak betetzen ez dituzten legezko trabak egotea eragozpena da zerbitzuak emateko askatasunarentzat eta, ondorioz, eragozpena eraginpeko merkatuko lehia eraginkorarentzat, lehiaren defentsarako agintarien esku-hartzea behar baitu, sustapenerako zein aurkaratzeko eskumenak gauzatzeko.

**17.** Dagokigun kasuan, lizitazio publiko baten enpresa esleipendunari hitzarmen kolektibo jakin bat aplikatzeko eskakizuna lortu nahi den helburuarekiko diskriminatzailea, premiazkoa eta proportzionatua den aztertu behar da.

Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboko edo hura berrikusteko ondorengo hitzarmen kolektiboetako lan-baldintzak inposatzeko eskakizuna diskriminatzailea izan daiteke, aparteko betebeharrak bat baita edozer arrazoi dela-eta jatorrian hitzarmen kolektibo jakin horren lan-baldintzen mende ez dagoen edozer enpresarentzat. (Adibidez, Gipuzkoan kokaturiko enpresek, beste baldintza batzuk hitzartu izanagatik enpresako beste hitzarmen kolektibo batean, edo beste lurraldeko hitzarmen kolektibo bat jarraitzen duten beste lurralde historiko batzuetako enpresak). Guztiei inposatzen zaie laneko legediari jarraiki aplikagarriak ez zaizkien laneko baldintzak betetzea. Bestalde, Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboak, bere aplikazio-eremuari dagokionez, langile



gipuzkoarrei beste baldintza batzuk betetzea ahalbidetzen die lurralde historikotik kanpo bidaltzen dituztenean.

Neurriaren **premiaren** azterketa egiteko interes orokorreko premiazko arrazoi batek justifikatuta dagoen erabaki behar da. Beste lurralde batzuetatik Gipuzkoara eramandako langileen kasuan, haiek beti leudeke beren hitzarmenaren baldintzek babestuta –izan enpresakoa, sektorekoa edo probintziakoa–. Hori dela-eta, ez legoke agintarien esku-hartzea eskatuko lukeen lan-baldintzen babesgabeziarik. Gainera, hitzarmen jakin bat eskatzeak ez du ziurtatzen, berez, enpresa esleipenduneko langileak babestuago egongo direnik, zenbait klausula onuragarriago izango baitira eta beste batzuk kaltegarriago. Ez dugu uste Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboan bildutako lan-baldintza guztiak babes minimoko aginduzko xedapentzat har daitezkeenik eta haiek enpresa esleipendunak Gipuzkoara lekualdaturiko langileei aplikatu behar zaizkienik.

**Proporzionaltasunaz** hitz egitean, lortu nahi den helburua erdietsiko dela bermatzeko beste tresna egokiagorik ez dagoela ulertuko dugu. Horrekin lotuta, gure ondorioa da hitzarmen kolektibo bat goitik behera aplikatzeko eskakizuna ez dela lortu nahi den xedearekiko proportzionala, hitzarmenak babes minimoko aginduzko xedapentzat har ez daitezkeen gaiekiko erreferentziak biltzen baititu.

**18.** Hortaz, lizitazio publiko baten esleipendun suertatzen den enpresari hitzarmen kolektibo jakin bat aplikatzeko eskakizuna ez dugunez ez beharrezkotzat ez proportzionaltzat jotzen, eskakizun hori lizitazio publikoen merkatura sartzeko justifikatu gabeko tratatzat jo behar da.

**19.** 4/2013 Foru Arauak enpresa lizitatzailleek aurkezturiko eskaintzen kostuak berdintzea bultzatzen dezaketen beste eskakizun batzuk biltzen ditu (adibidez, onartutako eskaintzen batez bestekoaren % 10etik bera dagoen edozer eskaintza ausarkeriazkotzat joko dela dioen 6. artikulua). Xedapen mota horrek balizko lizitatzailleentzat lehia-elementu bat izan daitekeena kentzen du eta, ondorioz, arazo bat sortzen du merkatuagatiko lehian.

**20.** Gizarte-alderdiari begira Batzar Nagusien ekimena goresgarria izan badaiteke ere, adierazitako kontratazio publikoaren bitartez laneko helburuak lortu nahi baititu, esaterako gizarte-dumpinga saihestea eta langile guztientzat ordainketa estandarren arabera soldata-berdintasuna bermatzea, diseinatuta dagoen moduan, abantailak eskain diezazkieke zenbait enpresari.



## V. BALIZKO AURKARATZERAKO EPEA

**21.** Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua dioenez, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilekoa izango da, aurkaratu nahi den xedapena argitaratu den egunetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da abuztua ez dela zenbatzen bi hilabete horien barruan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen adierazitako 29/1998 Legearen 128.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

**22.** Uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren, Botere Judizialari buruzkoaren, 185. artikulua ezartzen du prozesuetarako epeak Kode Zibilean ezarritakoaren arabera zenbatuko direla. Kode Zibileko 5. artikuluan ezartzen denez, epeak hilabetea edo urteka emanda daudenean, hasiera-egunak esango du amaiera-eguna zein den.

Auzitegi Gorenak behin eta berriz esandakoaren arabera, data batetik besterako zenbaketa egiteko erreferentzia gisa hartzen den egunaren biharamunean hasten garenez zenbatzen, amaierako eguna beti da aintzat hartzen ari garenaren ordinal bera<sup>11</sup>.

**23.** Dagokigun kasuan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea dagokion Foru Araua argitaratzen den egunaren –kasu honetan 2013ko uztailaren 22an izan zen– biharamunean hasten da. Nolanahi ere, epe horren zenbaketa eten egin behar izan da abuztuan zehar, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 128.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epearen zenbaketa berriz hasi denean, hura 2013ko urriaren 22ko 24:00etan amaituko dela adierazi beharra dago.

## VI. ONDORIOAK

**LEHENENGOA:** Kontratu publikoen arloko Europar Batasuneko eta Estatuko legediek kontratazio publikoan gizarte-klausulak sartzeko baimena ematen

<sup>11</sup> Besteak beste, 1990eko urriaren 3ko eta 1994ko ekainaren 3ko epaiak.



dute. Kontratazio publikoaren araudiari jarraiki, klausula horiek txertatzerakoan errespetatu egin beharko dira lehia askeko printzipioak.

**BIGARRENA:** 4/2013 Foru Arauaren edukiak (bereziki babes minimoko aginduzko xedapentzat har ez daitekeen oro Hitzarmen Kolektiboan sartzeari buruzko erreferentzia, 6. eta 7.4.a artikulua) Gipuzkoako lurralde historikoko obra publikoko lizitazioen merkatuan sartzeko justifikatu gabeko traba izan daitezkeen betebeharrak biltzen ditu, eta horrek mugatu egingo luke lehia askea adierazitako merkatuan.

**HIRUGARRENA:** Lehiaren Euskal Agintaritzak eskumena du Administrazioekiko Auzien Jurisdikzioaren aurrean 4/2013 Foru Araua aurkaratzeko, Lehiaren Euskal Agintaritzaren 1/2012 Legearen 3. artikulua laugarren lerrokadan ezarritakoari jarraiki, adierazitako Foru Araua legearen beharagoko mailako xedapen orokorra baita eta ez baitu zergei buruzko foru-arau izaerarik.

**LAUGARRENA:** Adierazitako Foru Araua aurkaratzeko epea 2013ko urriaren 22ko 24:00etan amaituko da.

Bilbon, 2013ko irailaren 17an

**PRESIDENTEA**  
**MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**IBON ALVAREZ CASADO**

**BATZORDEKIDEA**  
**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**BATZORDEKIDEA**  
**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**